

Ondoren ETAk zabalduko «Barne komunikazio orokorra»ren zati batzuk, hitzez hitz jasota:

(...)

1.- AZKEN BI URTEETAKO BILAKAERA

Bilakaera aztertzeko, duela bi urteko hausnarketa eta testuingurua gogora ekarri behar dira. Estrategiaren eraberritzeak eta batez ere Erakundearen erabaki historikoak, egoera berria ireki zuen Euskal Herrian, agertoki politikoari parametro berriak ekarriz.

Erabakia estrategikoa izan zen, askapen prozesuan fase berria zabaltzeko helburuarekin:

- Askapen prozesuan hurrengo fasea bultzatu eta gauzatu behar duen subjektua indartzeko: ezker abertzaleko antolakundeak, aliantza estrategikoak, masa borroka eta indar metaketa... Azken buruan, norabide berean, alde askotariko indar harreman berria sortzeko.
- Estatuekiko konfrontazioa herri gisa burutzeko eta prozesua agertoki berrietara eramateko: akordio demokratikoak erdietsi edo hauek lortu ezean, burujabetzaren bidean alde bateko urratsak egiteko.
- Oro har, askapen prozesua sartuta zegoen inertziatik atera eta aurrerapen kualitatiboetarako estrategia eraginkorra antolatu eta garatzeko.

Egiturazkoak diren oinarri horietatik, erabakiak konponbide eta negoziazio prozesua bideratzeko palanka izatea bilatzen zuen:

- Konponbiderako aukera historikoa eta beharra azalaraziz, atzeraezinezko prozesu gisa ezaugarrituta.
- Konponbide prozesuan nazioarteko parte hartzea eta babesa bultzatuz.
- Prozesuak behar duen egituraketa erraztuz eta bide horretan urrats sakonak emanez.

Helburu hauei begira, indar harremanen aldaketa eragin, gehiengoak eskuratzen joan eta aldaketa prozesua gauzatzeko hauen gaitasuna gaketzat jo genituen:

- Harreman aldaketa horrek epe laburrean emaitza garrantzitsuak eman dituen arren, epe erdi/luzeagora begirako erronka gisa kokatu behar da, fase osoari begirakoa, hain zuzen.
- Lortu beharreko indar harreman berriak, norabide bakarrean, eremu guztiak ditu kontuan: arlo sozial, sindikal, politiko zein instituzionala.
- Hala, gehiengoak eta baliabideak lortzen joateak, herri gisako akordioetarako aukerak ireki behar ditu, bai eta, elkarlan esparru berriak ehunduz, urrats egituratzaileetarako gaitasun handiagoa izatea ere.

Guztiarekin, erronka, aldaketa politiko/soziala eragin behar duen Euskal Herriko indarren arteko prozesua egituratu eta bi estatuak gatazkaren konponbidean urratsak egitera behartzea da.

Askapen mugimenduaren erabaki eta urratsek zein faktore politiko zein ekonomikoek, Euskal Herriko egoeran astinaldia eragin dute. Estatuak eta eragile guztiak hausnarketa eguneratu behar izan dute ere:

- Guztiak dakite, fase berri baten atarian gaudela eta ezker abertzaleak hartutako erabakien irismen estrategikoak norainoko sakonera duen.
- Egoera aldakorra eta dinamikoa izanik ere, gehienak, ezker abertzaleak orain arteko errealitatean eragin nahi duen eraldaketa sakona indargabetzeari begira aritu dira.
- Estatu indarren eta autonomisten asmoen bat egite horrek, hautu estrategikoa du atzean: ezker abertzalearen eta alderdiaren aldeko gehiengoaren indartzea eragoztekoa, orain arteko indar eta botere harremanak bere horretan mantentzeko.
- Eta horregatik ere, guztiak, norberaren beharrez harago, konponbidea ibilgaitz edo desitxuratzeko jokabidea izan dute, jakina baita gatazka gaitzizkoak, agertoki berriak ekarriko lituzkeela gure herrian, ezker abertzalearen posizioak indartzearekin batera.
- Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako alderdi estatalista nagusiek, aldez, beste jarrera bat azaldu dute, gatazkaren konponbidearen aldeko ikuspegi ireki eta eraikitzailea garatuz.

(...)

e) Askapen Mugimendua

Askapen mugimenduaren strategiari dagokionez, duela lau urte, 2009an, askapen prozesuan fase berria zabaltzeko erabaki nagusiak hartu eta strategiaren ardatz nagusiak finkatu ziren. Euskal Herrian aldaketa politiko eta soziala gauzatzea jarri genuen erronka nagusia. Hau da, azken hamarkadetakoa erresistentzia fasean eskuratutako lorpen politikoen gainean, baldintza berriak sortu eta ezegonkorturik ageri den eredu gaitzizko trantsizio prozesua burutzen hastea.

Horretarako, aldaketa prozesua gidatu behar duen subjektua eraiki/indartu eta herri gisako bidean gehiengo berriak sustatuz, lehen urratsak egiteari ekin zitzaien:

- Burujaitezaren aldeko indar ezkeriarren arteko aliantza/akordio estrategikoak osatuz eta apustu konpartituen alde eginez: hauteskunde eta instituzioetan, masa borroka eta herri aktibazioan, konponbide prozesuaren garapenean, nazio eraikuntzan...
- Gatazkaren konponbide prozesuaren egituraketan aurrerapenak eginez: indar metaketarako tresna berrien sorrera, akordioak, mobilizazio ildoak eta nazioarteko babesa.
- Ezker abertzalearen antolaketa, barne kohesioa eta indartze fasea bideratuz. Eremita ezberdinetako barne prozesu eta tresnen eraberritzearekin.

Estrategiaren eraberritzeak, oro har, lorpen esanguratsuak ekarri ditu. Euskal

Herrian sinesgarritasuna eta babesaren irabazteaz gain, aipatu hiru eremuetan aurrerapen nabarmenak eman dira. Arrazoi ezberdinak direla medio, baina, hainbat erronka ez dira nahiko genukeen abiaduran eta sendotasunarekin garatzen ari.

Horien artean, konponbide prozesuari arreta berezia jarri nahi diogu. Izan ere, aldaketa prozesuak fase ezberdinak izanik, estrategia independentistaren garapenean gatazkaren konponbide prozesua eta, zehazki, ondorioen eremua gainditzea jarri genuen epe motz/erdiko lehentasuna. Orduko irakurketaren arabera, Euskal Herrian pilatu beharreko indarrekin, nazioarteko babesarekin eta jarduera armatua uzteko erabakiarekin, estatuak ondorioen konponbidean nola edo hala murgiltzeko aukerak zeuden. Nola edo hala diogu, argi baikenekien estatuak ez zutela borondaterik izango eta prozesuan etengabeko trabak jarriko zituztela.

Eta konponbide prozesuaren urratsekin batera, edo hari loturik, burujabetzan oinarrituriko trantsizio prozesua garatzeko aukera berriak irekiko lirateke.

Alta, lehenago aztertu dugun estatuaren eta zenbait eragileren jokabideak prozesuaren blokeoa bilatu du (baita lortu ere), ezker abertzalea eta bere estrategia ondorioen eremuan kateatuta gera daitezela.

Honek, ondorio batzuk ateratzera eramaten gaitu:

- Ezker abertzalearen ildoak, konponbide prozesua egituratzeko ahaleginean garatu da batez ere. Konponbide prozesuaren kudeaketa eta garapena elkarrizketa eta negoziazio ikuspegiari loturik egon da gainera, baita Erakundearen ildoari dagokionez ere. Zabalduko mezuak eta ekimenen ezaugarriak (ez garrantzi gutxiagoko beste helburuekin batera: indar metaketa, euskal prozesua gorputzea, nazioarteko babesaren, etab.), ikuspegi horren arabera garatu dira nagusiki.
- Lehen unean jokabide logikoa zen. Batetik, konponbide eta negoziazio prozesua egituratzeko aurreikuspena zegoelako, adosturiko eta Aieten gauzatutako bide-orria jarraituz. Eta bestetik, konponbide prozesua, eta zehazki, gatazkaren ondorioak ahalik eta arinen gainditze bidean jartzea strategiaren garapenean garrantzia handikoa zelako/delako. Beraz, aldebiko prozesua abiatu eta egituratzen jarri behar zen indarra, maila batean zenbait apustu hurrengo urratsetarako utziz.
- Estatuaren eta eragile horien jarrera dela eta, egonkortzen joan den blokeoaren aurrean, ordea, denbora luzez ez da gogoetaren berrikuspenik egin, edo ez behintzat mugimendu osoak bateraturik urrats zehatzetan eraginkortasunez ekiteko moduan.
- Eta horrela, unean une, epe motzean blokeoa apurtzeko mugimenduetan nahi eta ezin ibili gara, prozesu eredu bera erakusten ari zen ezintasunari erreparatu gabe:
 - Ondorioak gainditzea aldebiko negoziazioen eremu soilera murriztean, Estatuari prozesua goitik behera baldintzatuzeko aukera ematen zaie.
 - Gatazkaren erro politikoak gainditzeko prozesua soilik alderdien arteko

elkarrizketa eta balizko akordioen eskema zurrunaren arabera ulertuta, inolako aldaketarik nahi ez duten indar politikoei beto gaitasuna ematen zaie.

- Aipatu den egoerari aurre egiteko alde bateko estrategiaren beharra azaldu izan da sarri. Baina, alde bateko estrategia ezinbestekoa izanik ere (iniziatiba politikoa izatea, Estatuak egingo dutenaren gainetik), logika oso bat argitu eta estrategia arrakastaz garatzeko ildo, ekimen eta programazio bat ebatzi behar da.
- Honek guztiak, prozesua gatazkaren ondorioen eremura begira loturik eta aurrerapen nahikorik eman gabe garatzeko arrisku bizia ekarri du, ikuspegi mugatu horretatik jardun ezker, blokeoa hausteko bideak estutuko liratekeen bitartean. Estatuaren helburua, estrategia osoa eremu horretatik ezintzea baita.
- Dena dela, horiek horrela, ezin dira gutxietsi ere ezker abertzaleak egin duen ahaleginak utzi dituen beste bi ondorio. Gure estrategian garrantzi bizikoak biak, baldin eta ongi bideratzeko gai bagara:
 - Ezker abertzalearen borondatea eta jarrera eraikitzailea agerian gelditzen ari dira, jendartearen nahiarekin lotuz.
 - Estatuaren posizioa gero eta higatuagoa dago eta, horrela, jarrera, nahi edota sentimenduetan Espainia/Frantzia eta Euskal Herriaren arteko zuloa handitzen doa.

Oro har, aldagai ezberdinen ondorioz (lehen fasean konponbide prozesua bideratzeari emandako lehentasuna eta horretan izan ditugun zailtasunak, ziklo elektoralak ezarritako erronkak, ezker abertzalearen berrantolaketa egin beharra, etab.), burujabetzan oinarrituriko euskal zikloa zabaltzeko estrategia osoa baino ikuspegi mugatuagoa erakutsi dela esan daiteke.

Guztiarekin, egin ditugun aurrerapausoek eta azaldu diren mugek, hausnarketa berritzera eraman behar gaituzte, estrategia independentistaren osotasunetik Euskal Herriko prozesua egituratu eta estatuak ezarritako tranpari ihes egiteko egokitzapen berriak eginez.

2.- ONDORIO NAGUSIAK

- Ezker abertzalearen strategiaren eraberritzeak eta harturiko erabakiek, artean Erakundearen erabaki historikoak, Euskal Herrian egoera politiko berria ireki dute.
- Espainiako estatu ereduak krisialdi sakon eta integralean murgilduta dago. Ahulezia estrategiko nabariak ditu ataka honetan dituen desfizioei aurre egiteko. Ikuspuntu horretatik ulertu behar da Euskal Herriarekiko duen jarrera: ez du eskaintza demokratikorik gatazkaren konponbiderako aukera historikoari aurre egiteko eta beraz, prozesua blokeatzeko apustuan buru-belarri ari da. Epe laburrean ez dago estatuarekin aldeko prozesurik egiteko aukerarik.
- Estatu indarrek Euskal Herrian dituzten sukurtsalek, estatuaren behar eta interesei begira jardungo dute. Madrilgo bulegoetan finkaturiko strategiarekin bat eginez, konponbiderako eta indar harreman berriak

sortzeko aukerak eragozteko. Zentzu horretan, trantsizio prozesua ekiditeko, euskal burgesia eta autonomismoa estatuaren menpean lotuta mantentzeko saiakera nagusituko da.

- Frantziako Estatuak Espainiakoarekin bat egin du konponbide prozesuaren erasoan. Euskal Herriko gehiengoaren eskaerak aurrean izanda ere, epe laburrean ez da aurreikusten gatazka politikoa gainditzeko urratsik egingo duenik, ez ondorioetan ez arrazoietan ere. Bere estrategia, osatu den gehiengoaren eskakizunei ezezkoekin erantzun eta ateak itxita mantentzea da.
- Autonomismoa ordezkatzeko duen PNVk, alderdi eta klase interesen baitan, gaur gaurkoz, estatuarekin bat egitea erabaki du. Alta, euskal jendartearen nahiei eta irekitako egoera berriari aurre egin behar dio. Erdibideko tartea murrizten ari diren honetan, hautu estrategikoa Euskal Herriaren aldekoa izan dadin, independentziaren aldeko indarrek estrategia eraginkorra bideratzea ezinbestekoa da.
- Eragile hauen guztien helburua eta interesa, ezker abertzalea eta aldaketa prozesua parametro berrietara zuzen dezakeen burujabetzaren aldeko esparru ezkertiarren gaitasuna indargabetzea da.
- Egoera sozial eta ekonomiko larria, aldaketa prozesuaren erdigunean dago. Inposatzen ari diren neurriak eragiten ari diren sarraski sozialaz gain, Euskal Herrian erabaki propioak hartzeko tresnak eta aukerak murrizten ari dira.
- Euskal Herrian indarrean den eredu agortua dago. Euskal jendarteak dituen behar eta nahiak asetzeko mugak gero eta nabarmenagoak dira, mota guztietako erasoak areagotzen ari diren bitartean. Ondorioz, erabakiak Euskal Herrian hartzeko eta tresna propioak izateko eskubidearen aldekoitasuna zabaltzen ari den eztabaida eta errealitatea da.
- Erabakitzeko eskubidearen eta burujabetzaren aldekoitasun sozialean elementu berriak azaleratu dira. Naziotasunaren aldarriari, arrazoi/interes sozial eta ekonomikoak gehitzen ari zaizkio. Erabakitzeko eskubidea, beraz, konponbidearen ildotik haragoko behar gisa hedatzen ari da jendartearen.
- Ezker abertzalearen strategiaren garapenak eta estatuen etengabeko mespretxuak, herri prozesua antolatu eta gehiengo sozial berriak osatzeko aukerak ireki ditzakete.
- Estrategiak orain arte izan duen ibilbideak, egoera politikoa astintzeaz gain, indar harremanen aldaketan aurrerapen esanguratsuak ekarri ditu, estatuen posizioetan higadura handituz. Oraindik orain, ordea, jendartearen espazio gehiago zabaldu eta herri prozesua bere osotasunean eta epe luzerako inizatibean egituratzerik ez da lortu. Honek, gatazkaren konponbide prozesua eta egin beharreko ibilbidea estatuen urratsen menpe uzteko egoera kezkarria ekarri du.
- Ezker abertzalea barne eraldaketa prozesuan murgilduta dago. Urrats garrantzitsuak egin ditu fase honi begirako estrategia eta tresnak eraberrituz. Aldaketa prozesuan betetzen duen motor papera aintzat hartuz, bere indar/ondare historiko guztia norabide berean bateraturik eta aktibatuz aritu dadin ahaleginak eta baliabideak biderkatu behar ditu.
- Laburbilduz: estatuen eta hainbat eragile politikoren blokeo eta inboluzioak, prozesua indargabetzeko atakara eramanez gaitzake. Zepo horretatik ihes egin eta euskal gehiengo osatzea helburu duen herri prozesuaren mesedetan jarri behar dira indarrak.

3.- AURRERA BEGIRA: ESTRATEGIA GARATZEKO GOGOETA

Ondorio nagusiek, aurrera begirako egokitzapenak eta zutabeak ebaztera eramane behar gaituzte. Eginkizun horretan sartu aurretik ordea, argipen bat egin behar da: fase honetarako strategiaren marko eta irizpide orokorrak ez daude auzitan. Egin behar den ariketak, strategiaren eraberritzean finkatu ziren irizpide eta tresnen gainean, gure helburuetan ahal bezainbeste aurrerapen egiteko eraginkortasuna irabazteari erantzun behar dio. Eta horretarako, prozesuaren garapenerako sakoneko urratsak egin behar dira.

Ezker abertzalearen apustua hurrengo urteetan aldaketa prozesua bururaino eramatea izanik, hots, trantsizioa gauzatzea, prozesu horren osotasuna bultzatu eta egituratzera zuzendu behar da gure estrategia.

Euskal Herria aro berri baten aurrean dago, bidegurutzean eta euskal jendartean aldaketak gertatzen ari dira. Herri gogoia berpiztu eta berau erabakigarria izango den ibilbidea egiteko unean gaude. Sektore ezberdinak eta herritarrak Euskal Herriaren aldaketa prozesuan protagonista aktiboak bilakatzeko bidea urratzeko unean, alegia.

Estatuek eramane nahi gaituzten aterabiderik gabeko atakatik ihes egin eta prozesua baldintzatzeko izan ditzaketen tartekak gutxitzea lortu behar da. Estatuak, ETArekiko pultsua irudikatu nahi duten arren, Euskal Herriarekiko pultsua da irabazi nahi dutena eta justuki, gureak, batez ere Euskal Herrian eragin beharreko aldaketei begiratu behar dien bidearekiko apustua izan behar du. Euskal Herriaren beharrei eta hauek eskatzen dituzten epeei egokitu behar gatzaizkio, estatuak begira geratuta, prozesuaren inizatiba eta kontrola luzerako galdu nahi ez badugu.

Euskal Herrian hartu beharreko alde bateko erabakietan oinarrituriko herri prozesuaren ibilbidea ibili behar da. Euskal Herriaren hitza eta erabakia, aldaketa prozesua ezaugarritzen duen enborra baita, lan ildo eta eremu orotan eragiten duena. Egungo inposizio eta ukazioetatik, eredu berrira eramaten gaituena. Erabakitzeko eskubideak ezaugarri taktikoak dituen arren, izaera estrategiko sakona du bere baitan:

- Euskal Herriak mota guztietako erabakiak hartzeko dituen ezintasunak edota herri borondatearekiko amaigabeko mespretxuak, aldaketa prozesuaren erdigunean kokatzen du bide propioa egiteko eta estatuaren aitzinean herri gisako konfrontazioa sakontzeko beharra. Beraz, erasopean eta bahiturik dagoen herri nahiari eskaintza integral eta egokia eman behar zaio.
- Prozesu hori ez zaio soilik esparru politikoari lotzen, eta ez da gatazkaren konponbiderako elkarrizketa eta akordio bakarrera mugatzen ere. Euskal Herriaren hitza eta erabakiaren aldeko prozesuak, izaera dinamikoa eta integrala du, ezaugarri sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta instituzionalak barne biltzen dituena.
- Beraz, perspektiba zabal horretatik ekin behar zaio prozesuari, bestelakoan, estatuak gatazkaren ondorioen eremuan lotu nahi gaituzten bezala, egundaino eragile politikoaren borondate eza ikusita, elkarrizketa eta akordio

- demokratikoaren eremuan aurrerapen ezan lotzeko arriskua izango genuke.
- Urratsez urrats aurrera egingo duen prozesuaz ari gara, bide batez, gero eta akordio zabalagoetarako baldintzak sortzeko.
 - Hortaz, prozesuak independentismoaren indarrak gainditzeko, baina estrategia independentistari estuki lotzen zaio, urrats emalea den prozesu gisa ezaugarritzen dugun heinean, Euskal Herriak behar dituen tresnen defentsan eta eraikuntza klabeetan oinarritzen delako. Beraz, ikuspegi independentista eta sozialistatik hausnarturiko prozesua da, fase honetako erroketari erantzutera zuzendua betiere.
 - Burujabetzaren aldeko bidea gero eta indartsuagoa izan, beste indar politiko edota ekonomikoek orduan eta zailtasun gehiago izango dituzte fondonko eztabaidari eta urratsei ihes egiteko. Euskal jendartearen gehiengo berriak bultzatu, sektore ezberdinen arteko adostasunak ehundu eta hauek aldaketa prozesua bideratzeko gaitasuna indartu ezkerreko, estatuak eta gainerako eragileak behartzeko baldintza egokiagoak izango ditugu.
 - Era berean, gatazkaren konponbide prozesuan egin beharreko urrats eta ekimenek, burujabetzaren aldeko bidea eraikitzen lagundu behar dute. Hots, ikuspegi zabalago batetik heldu behar zaio konponbide ildoari, Euskal Herriaren aldeko indarrak iraunkorki elikatu eta herri prozesuaren garapena aintzat hartuz.

Zentzu horretan, askapen mugimenduak, eremu ezberdinetatik alde bateko inizatibak Euskal Herriko prozesuaren osotasuna azkartzeko, alde anitzeko konpromiso berriak bultzatzeko eta nazioarteko inplikazioa errazten jarraitzeko tresna gisa garatuko dituen aurrerantzean ere:

- Gure erabaki eta ekimenak Euskal Herriko askapen prozesuan ekarri behar dituzten aurrerapen eta onurei begira zuzendu behar dira nagusiki.
- Alde bateko erabakiak, epe erdiko perspektiba duen ildo eta programazio baten barnean garatu behar dira, erabaki horiei ibilbide osoa emanaz eta eraginkortasunez gestionatuz.
- Urrats horiek epe laburrean estatuetik alde biko efektua eragingo dutenaren ikuspegi murriztua gainditu behar da. Gainerakoan, egiten den urrats oro etsaiarekiko kontzesio gisara ulertu eta etsipen iturri izango bailitzateke, eta ez, prozesuan lehenetsi nahi ditugun indarguneetan izan behar duen eragin multzoaren azterketaren baitan.

Hala, estatuarekin alde biko prozesua egiteko aukerak murriztuta, okertuko ginateke, strategiaren berrikuspen hau, gako taktikoak eta zehazki gatazkaren konponbidea bigarren mailan kokatuz hurrengo fasera jauzi zuzen gisara ulertuko bagenu. Konponbide osoa bultzatzea eta gatazka gainditzeko urratsak ematea lehenetsizko erroka da, Euskal Herrian agertoki berriak zabaltzeko ezinbestez zeharkatu behar den fasea delako. Beraz, egungo fasea gainditzeko strategiaren eraginkortasunari eta osotasunari erantzun behar zaio eta horregatik, prozesuak, gatazkaren konponbidean eragin behar dituen aurrerapenak bildu behar dituen ezinbestean. Beraz:

- Prozesua estatuaren urratsen menpe uzteak, argi denez, berau baldintzatzeko ahalmena ematen die. Estatuak ez dute borondaterik, ez dute izango eta ez

dira mugituko Euskal Herrian jauzi sakonak egiten ez diren bitartean. Antzua litzateke beraz, prozesua saboteatzen ari direnen nahiak asetzen ahaleginduz blokeoa hautsi daitekeela pentsatzea.

- Zentzu horretan, gatazkaren ondorioen konponbidea Erakundea eta estatuen arteko lehia hutsa bilakatuz gero, nekez gaindituko da blokeoa eta egoera horretan prozesua usteltzeko arriskuan jausiko litzateke. Formula eta aukera berriak landu behar dira eredu irekiagoan, eredu bakarreko ikuspegian aurrera egin ezinda geratu gabe.
- Jakina, Erakundea-Estatuak eremuan elkarrizketa eta negoziatorako baldintzen lanketa eta ahalegin zehatzak egin behar dira, baina argi izanda prozesuan aurrera egiteko pultsu nagusia orokorragoa dela (Euskal Herria eta estatuak) eta pultsu hori elikatzeke ildoak garatu behar dela.
- Euskal Herrian lortu beharreko adostasunetatik aurrerapenak egitea eta nazioartetik prozesuarekiko sostengua areagotzea dira giltza nagusiak. Prozesuaren arrakastaren klabea, berau herri gisa bururaino eramateko dugun gaitasunean datzalako. Egiten ditugun urratsek, gainera, konponbide prozesuaz harago, bultzatu nahi dugun aldaketa prozesuari zuzenean eragiten diotelako.
- Irakurketa global horrek gidatu behar ditu aurrerantzean ere askapen prozesuan hartu beharreko erabaki berriak. Euskal Herria da gure ekimen eta ildoaren hartzaile nagusia.
- Azken urteetan prozesua dinamikoa dela behin eta berriz nabarmendu dugu eta dinamikotasun horrek, prozesuan eragiten duten aldagai guztiak kontuan hartu behar ditu, bai prozesuan zuzenki eragiten dutenak, bai eta egoera politikoan egiturazkoagoak direnak ere. Ezker abertzalearentzat prozesuaren garapenerako ardatza Aieten egonik, diseinu itxien gatibu izan gabe, ardatz horrek aurrera nola egin behar duen da ebatzi behar dena.
- Prozesuan eta gure helburuetan aurreratzeko ibilbide eraginkorra da eraiki beharrekoa. Ibilbide hori Euskal Herrian konponbidearen alde lortu beharreko alde anitzeko akordioetan eta herri mobilizazio iraunkorragoan oinarritu behar da. Alegia, herri borondateari bide emateko tresnak eta bideak eraiki behar dira.

Bestalde, garrantzitsua da faseen arteko ikuspegi zurrun eta mekanikoak alboratzea. Hau da, fase honetan gatazka gainditzeko lehentasunezkoa da, baina ildo independentistan urrats praktikoak egin behar dira, bai eraikuntza ikuspegitik, bai subjektu politikoa osatzeko urratsak eginez edota baita, independentziaren aldeko kontzientzia kolektiboa indartuz ere. Prozesuaren osagai guztiak modu egokian antolatzean dago gakoa, herri zapalkuntza orokorra gainditzeko estrategiaren katearen katebegi guztiak elkarri lotuz.

Ildo horretan, strategiaren garapenak, nazio subjektua osatzera begira aurrerapen sakonak ekarri behar ditu. Fase bakoitzean egin behar diren urratsak kontuan hartu arren, Euskal Herriaren egituraketarantzko baldintzak faseen arteko uztardura egoki batean hobetu eta aldatu behar dira. Egoeraren aldakortasunaren eta prozesuaren izaera dinamikoaren ondorioz, irekitasunez jokatu behar da, ildoaren garapenarekin sortzen joan behar garen aukera berrietan urrats erabakigarriak emateko planteamenduak eginez.

Era berean, prozesuaren bermea herria den heinean, gure strategiaren erreferentziek eta sustatu beharreko ekimenek irizpide hori etengabe blaitu behar dute, bi norabidetan:

- Ildoaren garapenarekin herri prozesuaren aldeko indarrak metatu eta adostasun espazioak zabaltzeko urratsak erraztuz.
- Herriaren aktibazioak funtzio erabakigarria izan dezan, borrokarako eskaintza zabala eginez.

Bide horretan, ezker abertzaleko antolakunde, militante eta oinarri sozialaren funtzio eta erantzukizuna berebizikoa da. Burujabetzaren aldeko ezkerreko esparruak prozesuaren garapenean duen erreferentzia garrantzitsuan, askapen mugimendua da prozesuaren motor lana beteko duena. Horregatik, azken urteetan ildoan eta antolakuntzan egiten ari garen aldaketa sakonak barneratu, bateratu eta urteetan pilaturiko indar/ondare guztia askatzea dagokigu. Ezker abertzaleak, askapen prozesuaren garrantzi handiko une honi aurre egiteko ongi prestatutako mugimendu gisa jardun behar du, bere potentzialtasun guztia apustuaren mesedetara bilduz eta bideratuz. Hori da gure herriarekiko dugun ardura.

Laburbilduz, kokapen orokorraren hezurdura hau litzateke:

- Aldaketa prozesuaren bi gakoak:
 - Trantsizio prozesuaren osotasuna elikatu eta garatzea.
 - Herri gisa aritzeko euskal eragile eta herritarren protagonismoa nagusitzea.
- Burujabetzaren aldeko bidea:
 - Eredu aldaketara zuzenduta, urrats emailea den prozesu erabakitzaile gisa. Euskal Herriko agenda politiko/soziala edukietan eta denboretan markatuz.
 - Euskal Herriak pairatzen dituen erasoei herri erantzuna.
 - Euskal Herriak dituen erronka sozial, ekonomiko, kultural eta politiko-instituzionalen inguruko adostasun eta akordioetan oinarritua.
 - Euskal Herriko eragile eta sektoreen arteko aliantza taktiko-estrategiko gisa antolatua.
 - Euskal herritarren parte hartze zabala ahalbidetzeko tresnak eta eskaintzak zabaldua.
- Konponbidearen ildoak:
 - Gatazkaren ondorioak:
 - Euskal Herrian alde anitzeko konpromiso eta akordioak lortu eta konponbide dinamika zabal eta integrala bideratzea, nazioarteko eragileen babesarekin.
 - Erakundea-Estatuak errailaren kudeaketa.
 - Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko ildoak: herri dinamika/mobilizazioiraunkorra, ekimen politiko/instituzionala eta Kolektiboaren ildoaren garapenean urratsak.
 - Salbuespen neurriei herri gisa aurre egiteko mekanismoen ugaritzea.
 - Gatazkaren erro politikoak:

- Erabakitzeko eskubidearen aldeko mugimendua: euskal gehiengo sozialaren artikulazioa eta adierazpidea.
- Elkarrizketa prozesua: akordio demokratikoaren orubeari begira, eragileen arteko harremanak eta espazioak irekitzen hasi, bide-orri bat adostuz.
- Ezker abertzalea:
 - Iniziatiba politikoa eta estrategiaren garapena eremu ezberdinetan. Epe erdirako plana.
 - Estrategiaren garapen eraginkorrerako tresna eta baliabideen indartzea bermatu.
 - Barne ondare eta gaitasun militante zein politiko guztia askatzeko urrats erabakigarriak eman: bai kohesioan, bai borrokarako eskaintzan.

(...)